



Murgian, bi mila eta hamaseiko apirilaren hamalauan, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletzeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.-

#### ALKATEA

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)

**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**  
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)

AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)

ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)

MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)

CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)

JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)

LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**  
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)

Arratsaldeko zazpitan bilkura publikoa irekita, Lehendakartzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

#### 1.- AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Aurreko Bilkuraren akta ikusirik, onartzea erabaki du Udalbatzak.

En Murgia a catorce de abril de dos mil dieciséis, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, D<sup>a</sup> Susana Zubiaur Zorrilla.

#### ALCALDE

DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

**CONCEJALES ASISTENTES**  
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)

DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)

DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)

DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)

DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)

DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)

DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)

DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**  
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

#### 1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA ANTERIOR.

Vista el acta de la sesión anterior la Corporación acuerda aprobarla.



## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak martxoaren 4ko 55/2016 zk.ko dekretutik apirilaren 7ko 79/2016 arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: 2016ko ekitaldiko Aurrekontu orokorraren behin betiko onespina. Bide publikoan utzitako ibilgailuen titularrei errekerimendua bertatik eramateko, hiri-hondakin solido bezala tratatzeko prebentzioarekin. Lukianoko 191/1 lursailean teilapea eta lastategiaren estalkiak eraikitze baimena ukatzea, proiektua behar duelako. Altuben txakur-haztegi eta -egoitzaren jarduera- eta irekiera-baimenak besterentzeko baimena ematea. Altubeko 654B/3 lursailean dagoen baserriko estalkia aldatzeko lanen azken ziurtapena onartzea. Bitoriano 1.229/1 lursailaren jabeari errekerimendua, bertan dauden hondakinak eramateko. Baimenak ematea: Murgiako lursail batean dagoen etxebizitzan garaje aurrean arrapala egin eta zoru bero-emailea jartzeko lanetarako; eta Bitoriano etxebizitza zaharberritzeko. 2583-BNP matrikuladun ibilgailuaren autotaxi baimena besterentzea, titularraren erretiroagatik. Hotel Casa Patrón, S.A., Eventokit S.L. eta Minimal Experiencia S.L. enpresei zigor-espedita hastea, erabilera publikoko eremuan bi karpa baimenik gabe jartzeagatik. Ezgaitasuna duten pertsonentzat aparkatzeko baimenak ematea. Kudeaketa-agindua Zuiako Koadrilari, 2016an Ezti Museoko bisita gidatuak kudea ditzan, ordua: 20,40 € gehi BEZ. Lan, zerbitzu, zuzkidura eta dirulaguntzei dagozkien 4. eta 5. zk.ko ordainketa-aginduak (92.956,51 € eta 431.931,98 €, hurrenez hurren) onartzea. Ordutegi luzatuko zerbitzuaren eta Musika Eskolaren otsaila eta martxoko tasen erroldak onartzea. Urkabustaizko bizilagun bati Murgiako EALZen sartzeko baimena. Zinegotzia ezkontza zibila ospatzeko eskuordetzea. 2015eko ekitaldiko likidazioa

## 2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto N° 55/2016 de 4 de marzo al 79/2016 de fecha 7 de abril, referentes a la aprobación definitiva del Presupuesto general ejercicio 2016, requerimiento a titulares de vehículo abandonado en vía pública para su retirada con prevención de tratamiento de residuo sólido urbano, denegación de licencia para construir tejavana y cubiertas de pajar en parcela 191/1 de Lukiano porque necesita proyecto, autorización de transmisión de licencias de actividad y apertura de criadero y residencia canina de Altube, aprobación de certificación final de obras de sustitución de cubierta de caserío situado en la parcela 654B/3 de Altube, requerimiento a propietario de la parcela 1.229/1 de Bitoriano para la retirada de residuos existentes en la misma, concesión de licencias de obras para ejecución de rampa de acceso a vivienda y suelo radiante frente a garaje en parcela de Murgia y para reforma de vivienda en Bitoriano, transmisión de licencia de autotaxi para vehículo matrícula 2583-BNP por jubilación de la titular, incoación de expediente sancionador a Hotel Casa Patrón, S.A., Eventokit S.L. y Minimal Experiencia S.L. por instalación de dos carpas en espacio de uso público sin la correspondiente autorización, concesión de licencias de estacionamiento para personas con discapacidad, encomienda de gestión a la Cuadrilla de Zuia para la gestión de visitas guiadas al Museo de la Miel durante 2016 a razón de 20,40€/hora más IVA, aprobación de las relaciones de mandamientos de pagos N° 4 y 5 referentes a obras, servicios, suministros y subvenciones por importes de 92.956,51€ y 431.931,98€ respectivamente, aprobación de los padrones de las tasas del Servicio de Horario ampliado y Escuela de música de los meses de febrero y marzo, autorización



onartzea. Kredituak gehitzeko 1-2016 zk.ko espedientea (181.080,73 €) onartzea. Eta 2016.01.01ean biztanleen udal-eroldaren zuzenketa onartzea: 2.349 biztanle.

Udalbatzak horren guztiaren berri izan duela adierazi du.

### 3.- POSTA OFIZIALA.

#### 3.1.- Arabako Foru Aldundia:

- Diputatu nagusiak: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako programak garatzeko diru-laguntzaren deialdia bidali du eta, ondoren, horren zuzenketa jakinarazi du; eta Arabako emakumeen eta gizonen III. Berdintasun Planari buruzko bilera deitu du 2016.04.12rako.

- Gizarte Ongizateak gizarte zerbitzuen maparen zirriborroa bidali eta bilera deitu du 16.04.15erako horren berri emateko.

- Ingurumen Sailak jakinarazi du Murgiako Añureta eta Avellanal kaleetan abandonatu itxura duten ibilgailuak daudela.

- Baso Zerbitzuak, 196. mugarritik 201.era arteko tartea eta Zuiako 3. poligonoko 619. lursaileko bidea islatzeko Udalak egindako eskaera onartu dela jakinarazi du.

- Toki Administrazio eta Lurralde Oreka Sailak, Aita Pauldarren instalazioak bereganatzeko 1.055.850,60 €ko diru-laguntza eman duela jakinarazi du.

- Nekazaritza Sailak: ekaitzek Berretinen botatako eta Gestión Forestal Frías S.L. enpresari esleitutako zuhaitzen aprobetxamendua premiaz onartu dela jakinarazi, eta gomendatu du urteroko

para el ingreso de un vecino de Urkabustaiz en el CRAD de Murgia, delegación en Concejal para la celebración de matrimonio civil, aprobación de la liquidación del ejercicio 2015, aprobación del Expediente de incorporación de créditos N° 1-2016 por importe de 181.080,73€ y aprobación de la rectificación del Padrón municipal de habitantes al 01.01.2016: 2.349 habitantes.

La Corporación se da por enterada.

### 3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.

#### 3.1.- Diputación Foral de Álava:

- Diputado general remite convocatoria de subvención para el desarrollo de programas destinados a la igualdad de hombres y mujeres y posteriormente comunica corrección de la misma y convoca reunión para el 12.04.2016 sobre el III Plan de Igualdad de mujeres y hombres de Álava.

- Bienestar Social remite borrador del mapa de servicios sociales y convoca reunión para el 15.04.16 para informar del mismo.

- Medio Ambiente comunica la existencia de vehículos con síntomas de abandono en las calles Añureta y Avellanal de Murgia.

- Servicio de Montes comunica la estimación de la solicitud del Ayuntamiento para reflejar el tramo correspondiente a los mojones 196 a 201 y el camino de la parcela 619 polígono 3 de Zuia.

- Administración Local y Equilibrio Territorial comunica la concesión de una subvención para la adquisición de las instalaciones del Colegio de los P. Paúles por importe de 1.055.850,60€

- Agricultura comunica la aprobación por urgencia del aprovechamiento del arbolado derribado por los temporales en Berretín, adjudicado a Gestión Forestal Frías S.L. y recomienda



otsailaren 1a baino lehen, NPE kanpaina hasi ondoren, emandako bazkalekuen ziurtagiriak aldatzea saihestea, gainerakoentzat dituen ondorioengatik.

- Derrigorrezko Diru-bilketa zerbitzuak kaudimen-gabeziagatik huts egindakoen deklarazioa bidali du.

- Ingurumen eta Hirigintza Sailak, Murgiako 7. poligonoko 28B lursailari dagokion eta Murgiako Administrazio Batzarrak sustatu duen Arau Subsidiarioen 5. aldaketa puntualaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasi dela jakinarazi du.

- Miñoien Zerbitzuak jakinarazi du 16.05.14an egingo den Parkeko Azokan trafikoa antolatzen lagunduko duela.

- Ogasun Sailak 2016ko otsaileko derrigorrezko diru-bilketaren berri eman du: 3.825,07 €; Udaletxeko ikusteko moduko puntu batean 2015eko errenta-aitorpenei buruzko informazio-puntua jartzea komeni dela jakinarazi du; eta 2015eko ekonomia-jardueren zerga-errola bidali du.

- Gazteriaren Foru Erakundeak 2016ko udaleku eta kanpamenduei buruzko informazioa bidali du.

- Toki Zergen eta Katastroaren Zerbitzuak 2016ko hiri, landa eta ezaugarri bereziko OHZ erroldak bidali ditu, jendaurrean jartzeko; eta jakinarazi du Altube inguruko 619/3 udal-lursailaren ondoko bideko mugari berriak islatu eta horren konfigurazioa aldatu dela.

### 3.2.- Eusko Jaurlaritza:

Ingurumen Sailak: Eskolako Agenda 21 programarako 675 €ko diru-laguntza eman duela jakinarazi du; lur eta harrizko betelaren gaiei buruzko informazioa eskatu du; eta Altube inguruan (A-625 errepideko 26 kilometro-puntuan) legez kanpoko zabortegia dagoela jakinarazi du.

que se evite modificar los certificados de pastos emitidos antes del 1 de febrero de cada año una vez iniciada la campaña de la PAC por las consecuencias que tiene para el resto

- Recaudación ejecutiva remite declaración de fallidos por insolvencia de deudores el Ayuntamiento

- Medio Ambiente y Urbanismo comunica el inicio del procedimiento de evaluación ambiental estratégica de la 5ª modificación puntual de las NNSS referida a la parcela 28B polígono 7 de Murgia promovida por la Junta Administrativa de Murgia

- Servicio de Miñones comunica su colaboración para organizar el tráfico en la Feria del Parque que se celebrará el 14.05.16.

- Hacienda informa de la recaudación ejecutiva del mes de febrero de 2016: 3.825,07€, interesa la instalación de un punto de información para las declaraciones de renta 2015 en un punto visible del Ayuntamiento y remite padrón del impuesto de actividades económicas 2015.

- Instituto Foral de la Juventud remite información sobre campamentos y colonias verano 2016.

- Servicio de Tributos Locales y Catastro remite los Padrones del IBI urbanos, rústicos y de características especiales del año 2016 para su exposición al público y comunica que se ha reflejado los nuevos mojones del camino lindante a la parcela municipal 619/3 en la zona de Altube y se ha modificado la configuración de ésta.

### 3.2.- Gobierno Vasco:

- Medio Ambiente comunica la concesión de una subvención de 675€ para el programa Agenda 21 escolar, solicita información sobre tema de rellenos de tierras y rocas y comunica la presencia de un vertedero ilegal de residuos en zona de Altube (Ctra. A-625, p.k. 26).



- Enplegu eta Gizarte Politika Sailak: oinezkoen pasabideetan espaloiak behertzeko 4.881,61 €ko diru-laguntza eman duela (2015/2016 eta 2017ko ekitaldien kargura) jakinarazi du; eta 2016ko martxoko DSBEaren onuradunen zerrenda bidali du.

- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, eraikinen azterketa teknikoari buruzko informazio-kartelak bidali, eta etxebizitzaren eraikuntzari buruzko estatistika betetzea komeni dela jakinarazi du.

- Lurralde Politika Sailak: EAELABen bilera deitu du, horretan abeltzaintzako instalazioen tarteen inguruan Arau Subsidiarioetan egingo den 2. aldaketa puntualaren espedientea jorratuko baita; gaienra, URA eta Ingurumen Zuzendaritzaren txostenak bidali ditu, eta beranduago, berorrek egindako txostena ere igorri du, non eragozpenik ez duela jasotzen duen.

- Osasun Publiko Sailak Murgiako Raleko ibilbide osasungarrirako emandako diru-laguntza 1538,24 €ra doitu dela jakinarazi du.

- Nekazaritza eta Arrantza Sailak abandonatu eta galdutako animaliak kudeatzeko protokoloaren berri eman du.

- Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak kirol-instalazioetako zerbitzu-kontratuaren esleipenaren aurka jarritako errekurtsu bereziaren inguruan emandako erabakiaren berri eman du: horren bitartez, errekurtsua zati batez onartu eta aurka egindako egintza baliogabetu du, lizitazioa bertan behera utziz.

- Lehendakaritzak "Udal-mailako bake- eta bizikidetz-politikak" agiria bidali du.

### 3.3.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak:

- Martxoaren 8ko deklarazioa bidali du, atxikitzeko.

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen prozesuan udalen iritzia

- Empleo y Políticas Sociales comunica la concesión de una subvención para rebaje de aceras en pasos de peatones 4.881,61€ con cargo a los ejercicios 2015/2016 y 2017 y remite listado de beneficiarios de RGI del mes de marzo/16.

- Vivienda y Asuntos Sociales remiten cartelería informativa sobre inspección técnica de edificios e interesa cumplimentación de la estadística de edificación de vivienda.

- Política territorial convoca a la reunión de la C.O.T.P.V. donde se tratará el expediente de la 2ª modificación puntual de las NNSS referente a las distancias de las instalaciones ganaderas y remite informes de URA y Dirección de Medio Ambiente y posteriormente remiten el informe emitido por la misma en el que se hace constar que no pone objeción alguna.

- Salud Pública comunica reajuste de la subvención concedida para la ruta saludable del Ral de Murgia a 1538,24€.

- Agricultura y Pesca informa del protocolo para la gestión de animales abandonados y extraviados.

- Órgano administrativo de recursos contractuales comunica la resolución dictada en el recurso especial interpuesto contra la adjudicación del contrato de servicios de las instalaciones deportivas, que estima parcialmente el mismo y anula el acto impugnado, cancelando la licitación.

- Presidencia remite el documento "Políticas de paz y convivencia para el ámbito local".

### 3.3.- Asociación de Municipios Vascos-EUDEL:

- Remite declaración del 8 de marzo para su adhesión.

- Recuerda el plazo de finalización para cumplimentar el cuestionario técnico



jasotzeko galdetegi teknikoa betetzeko epearen amaiera-eguna gogorarazi du.

- 2015eko udal-finantzazioan hitzartutako zergetako partaidetzari buruzko informazioa bidali du.

- HAEEK eta EUDELEK Ikuskizun publiko eta olgeta-jarduerei buruzko Lege berriaren inguruan antolatutako jardunaldirako deia egin du.

- 2016.04.15 batzar nagusirako deia egin eta horren gai-zerrenda bidali du.

#### 4.- UDALETXEKO BEHE SOLAIRUA BERRITU ETA IGOGAILUA JARTZEKO LANEN AZKEN ZIURTAPENA ONARTZEA.

Alkate-udalburu jaunak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, "Zuiako udaletxeko behe-solairua berritzeko, higiezinako berokuntza-sistema aldatzeko eta igogailua jartzeko proiektuaren idazketa" lanen 5. ziurtapena onartzea proposatu du. 53.021,62 euroko ziurtapen hori Raúl Pérez-Dañobeitia arkitektoak eta Juan Ruiz Cuevas arkitekto teknikoak eta horien ikuskatzaileak egin zuten, eta 5.000 € inguruko gehikuntzatxoa jasotzen du proiektuan aurreikusi gabeko jarduketengatik.

Bertaratutako batzuek galdetu dute zenbatekoa izan den esleitutakoari gehitutako igoera eta alkateak erantzun die 29.500 € gehi BEZ izan dela.

Udalbatzak Informazio Batzordearen proposamena aho batez berretsi eta honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- "Zuiako udaletxeko behe-solairua berritzeko, higiezinako berokuntza-sistema aldatzeko

de recogida de opinión municipal en el proceso de Directrices de Ordenación del Territorio.

- Remite información sobre financiación municipal 2015 y participación en tributos concertados.

- Convoca a jornada sobre la nueva Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas organizada por el IVA y EUDEL.

- Convoca Asamblea general el 15.04.2016 y remite orden del día.

#### 4.- APROBACIÓN DE LA CERTIFICACIÓN FINAL DE LAS OBRAS DE REFORMA DE LA PLANTA BAJA DEL EDIFICIO CONSISTORIAL E INSTALACIÓN DE ELEVADOR

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone aprobar la 5ª Certificación liquidación de las obras de "Redacción del proyecto de ejecución y la ejecución de las obras de Reforma de la planta baja de la Casa Consistorial de Zui, la sustitución del sistema de calefacción del inmueble y la instalación de elevador" expedida por el Arquitecto y Arquitecto técnico director e inspector de las mismas D. Raúl Pérez-Dañobeitia y D. Juan Ruiz Cuevas por importe de 53.021,62 euros, que incluye un pequeño incremento de unos 5.000€ por ejecución de actuaciones no previstas en proyecto.

Alguno de los presentes pregunta sobre el incremento producido respecto a lo adjudicado informando el Alcalde que unos 29.500€ más IVA.

La Corporación por unanimidad, ratificando la propuesta de la Comisión informativa ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar la 5ª certificación-liquidación de las obras del



eta igogailua jartzeko proiektuaren idazketa” kontratatze lanen 5. ziuertapen-likidazioa, 53.021,62 eurokoa, onartzea.

BIGARRENA.- Ziuertapen hori ordaintzea, Baldintza administratiboen pleguan xedatutakoarekin bat.

### 5.- KREDITUAK AUZIBIDETIK KANPO AITORTZEA.

Alkate-udalburu jaunak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, 2015. urtean egindako hainbat gasturen berri eman du, hots, zegokion Aurrekontuan nahikoa kreditu ez zutenak edo onartu ahal izateko 2015eko abenduaren 31 baino lehen nahikoa dokumentazioa aurkeztu gabe zutenak, edo egun horren ondoren aurkeztu zirenak. Gastu horiek galdagarriak dira hartzekodunek zegokien zerbitzua eman zutelako. Horregatik guztiarengatik, dagozkion obligazioak 2016ko Aurrekontu Orokorrean onartu behar dira.

Idazkari-esku-hartzaileak egindako txostena ikusirik.

Apirilaren 20ko 500/90 EDko 60.2. artikulua inguruan, Toki Ogasunei buruzko legearen testuategina onartu zuen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako EDko 163. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Ondoren zehazten den 2016rako Aurrekontu Orokorrean aurreko ekitalditik datozen 23.728,52 €ko gastu-betebeharrak aitortzea, zehazten diren

contrato de “Redacción del proyecto de ejecución y la ejecución de las obras de Reforma de la planta baja de la Casa Consistorial de Zuia, la sustitución del sistema de calefacción del inmueble y la instalación de elevador” por importe de 53.021,62 euros.

SEGUNDO.- Proceder al abono de la misma conforme a lo dispuesto en el Pliego de cláusulas administrativas.

### 5.- RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CRÉDITOS

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa da cuenta de gastos efectuados en el año 2015, para los cuales no había consignación en el citado ejercicio o no se aportó la documentación necesaria para su reconocimiento antes del 31 de diciembre de 2015 habiéndose aportado posteriormente a dicha fecha, y que resultan exigibles al haber cumplido los respectivos acreedores su correlativa prestación, y es por lo que se hace necesario reconocer las obligaciones correspondientes en el Presupuesto General del presente ejercicio 2016.

Visto el informe emitido por la Secretaria-Interventora.

Considerando lo dispuesto en el artículo 163 del R.D. Legislativo 2/2004, de 5 de marzo por el que se aprueba el texto refundido de la ley de las Haciendas Locales, en relación con el artículo 60.2 del R.D. 500/90, de 20 de abril,

La Corporación por unanimidad ACUERDA

PRIMERO.- Reconocer las obligaciones de gasto procedentes del ejercicio anterior por importe de 23.728,52 €, en el Presupuesto General para 2016 que



partiden kargura (horietako batzuk zuzkidura/osagarri helburua dute, aldi berean izapidetzen ari den kreditua aldatzeko espedientearen arabera):

a continuación se detallan, con cargo a las partidas que igualmente se concretan (algunas de las cuales son objeto de dotación/suplemento conforme al expediente de modificación de crédito que se tramita simultáneamente):

Ekitaldia	Kontzeptua	Indarreko ekitaldiko aurrekontu-partida
2015	Construcciones Cámara beheratzeen igoera: 1.358,90 €	1532601000
2015	Izartes urbanizazioaren zerbitzu-sarien igoera: 265,20 €	151601020
2015	Pavial urbanizazio-lanen igoera: 15.637,85 €	151601020
2015	Aparejadorearen abenduko zerbitzu-sariak: 2.693,54 €	150421010
2015	Arkitektoaren abenduko zerbitzu-sariak: 1.773,08 €	150421010
2015	Komunen alokairua Murgiako jaietarako: 510,27 €	334226060
2015	Abeto lorezaintza produktuen hornidura: 153,88 €	171210001
2015	Herri arteko garraiorako taxia: 415,80 €	4411226020
2015	Inguru Abentura Koop Elk. Txikia: 920 €	334226060

**Total.....23.728,52 euro**

Ejercicio	Concepto	Partida presupuestaria ejercicio vigente
2015	Construcciones Cámara incremento rebajes: 1.358,90€	1532601000
2015	Incremento Honorarios urbanización Izartes: 265,20€	151601020
2015	Pavial incremento obras urbanización Id.: 15.637,85€	151601020
2015	Honorarios Aparejador mes diciembre: 2.693,54€	150421010
2015	Honorarios Arquitecto me diciembre: 1.773,08€	150421010
2015	Alquiler baños para fiestas Murgia: 510,27€	334226060
2015	Jardinería Abeto suministro productos: 153,88€	171210001
2015	Taxi transporte interpueblos: 415,80€	4411226020
2015	Inguru Abentura Koop Elk. Txikia: 920€	334226060

**Total.....23.728,52 euros**

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren jarduketak burutu eta agiriak formalizatzeko ditzan udalaren izenean eta ordezkari gisa.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento realice cuantas actuaciones y formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**6.- AURREKONTUA  
ALDATZEKO ESPEDIENTEA: 1-2016  
AURREKONTU GEHIAGARRIA.**

**6.- EXPEDIENTE DE  
MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA  
PRESUPUESTO ADICIONAL 1-2016**





Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, partida batzuk gehitu eta bideratu ahal izateko aurrekontuaren aldaketa-espedita aldatu behar dela jakinarazi du, jarduketa batzuk burutzeko helburuarekin (kreditu ez-judizialen onspen-espeditan jaso eta 2015ean egindako prestazioak eta Murgiako 7. poligonoko 28. zk.ko udalaren finka birpartzelatzeko proiektuaren zerbitzu-sariak ordaintzea).

Proposatutako aldaketa-espeditaren inguruan idazkaritzak egindako txostena ikusirik. Txosten horri aurrekontu gastu eta egonkortasunaren araua ez betetzeari buruzko TXOSTENA gehitu zaio, aurrekontu-aldaketetarako diruzaintzako soberakina erabili izanaren ondorioz eta 38/2013 FAK eskatutakoa betez. Araudi horrek, aldi berean, Soberakina aurrekontu-aldaketetarako erabiltzea baimendu eta exijitu ere exijitzen du.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- 1/2016 zk.ko kreditu gehigarriaren espedita 22.170,22 eurotan onartzea, ondoren zehazten den baliabidea zehaztuta.

BIGARRENA.- Espediente hori jendaurrean jartzea, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan, erreklamazioak egiteko.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik egon ezean, erabaki hau behin betikotzat jotzea, eta egotekotan, hilabeteko epearen buruan gaiaren inguruko beste erabaki bat hartzea.

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta de la necesidad de tramitar un expediente de modificación presupuestaria para suplementar y habilitar algunas partidas para ejecutar determinadas actuaciones (abonar prestaciones ejecutadas en el año 2015 incluidas en el expediente de reconocimiento de créditos extrajudiciales tramitado simultáneamente y honorarios del proyecto de parcelación de finca municipal N° 28 polígono 7 de Murgia).

Visto el informe de la Secretaria sobre el expediente de modificación que se propone, al que acompaña un informe de incumplimiento de regla de gasto y estabilidad presupuestaria como consecuencia de la utilización del Remanente de tesorería para las modificaciones presupuestarias, de acuerdo con lo exigido por la N.F. 38/2013, normativa que al mismo tiempo permite e incluso exige la utilización del Remanente para las modificaciones presupuestarias.

La Corporación por unanimidad ACUERDA

PRIMERO.- Aprobar el expediente de crédito adicional número 1/2016, por un importe de 22.170,22 euros, con el recurso que lo financia que seguidamente se detalla.

SEGUNDO.- Exponer dicho expediente al público a efectos de reclamaciones en la forma y plazos fijados en el artículo 15 de la Norma Foral 3/2004.

TERCERO.- Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo en el plazo de un mes.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo



argitaratzea.

reglamentarios.

BOSGARRENA.- Aldi berean,  
Arabako Foru Aldundiari espedientearen  
kopia bidaltzea.

QUINTO.- Remitir,  
simultáneamente, una copia del expediente  
a la Diputación Foral de Álava.

GASTUEN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
150.421.010	Aparejadorearen 2015eko abenduko zerbitzu-sariak:	2.693,54
150.421.010	Arkitektoaren 2015eko abenduko zerbitzu-sariak:	1.773,08
151.601.020	Izartes enpresaren lan-zuzendaritzaren igoera	265,20
151.601.020	Izartes enpresaren lanetan Paviál Nortek gehitutako igoera	15.637,85
151.642.030	28/7 finka birpartzelatzeko proiektuaren zerbitzu-sariak	441,65
1532.601.000	Construcciones Cámara beheratzeen lana	1.358,90
<b>GASTUAK GUZTIRA .....</b>		<b>22.170,22</b>

SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
87001	Diru-zaintzan gastu orokorretarako soberan gelditu dena	22.150,22
<b>SARRERAK GUZTIRA.....</b>		<b>22.170,22</b>

PARTIDA GASTOS	DENOMINACIÓN	IMPORTE
150.421.010	Honorarios Aparejador diciembre 2015	2.693,54
150.421.010	Honorarios Arquitecto diciembre 2015	1.773,08
151.601.020	Incremento dirección obras Izartes	265,20
151.601.020	Incremento obras Izartes por Paviál Norte	15.637,85
151.642.030	Honorarios proyecto parcelación finca 28/7	441,65
1532.601.000	Construcciones Cámara obra rebajes	1.358,90
<b>TOTAL GASTOS .....</b>		<b>22.170,22</b>

PARTIDA INGRESOS	DENOMINACIÓN	IMPORTE
87001	Remanente Tesorería gastos generales	22.150,22
<b>TOTAL INGRESOS.....</b>		<b>22.170,22</b>

**7.- UDALAREN 7.  
POLIGONOKO 28. LURSAILEKO B  
AZPILURSAILAREN JABETZA  
MURGIAKO ADMINISTRAZIO  
BATZARRARI DOHAINIK  
LAGATZEA.**

**7.- CESIÓN GRATUITA EN  
PROPIEDAD DE LA SUBPARCELA B,  
PARCELA 28 POLÍGONO 7 DEL  
AYUNTAMIENTO A LA JUNTA  
ADMINISTRATIVA DE MURGIA.**

Alkate-udalburuak, Informazio

El Sr. Alcalde-Presidente,  
reiterando lo expuesto en la Comisión



Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Murgiako Administrazio Batzarrarekin Zuiako Udalarena den Murgiako 7. poligonoko 28B lursaila (gaur egun 308. lursaila) eta Murgiako Administrazio Batzarraren jabetzakoa den 1. poligonoko 9. lursaila elkartrukatzeko hasitako prozedura bertan behera uztea proposatu du, kontuan hartuta azken hori Udalaren jabetzakoa dela, Inbentarioan jasota dagoelako, horixe baitio aholkulari juridikoak emandako informazioak. Hartara, lursail horren jabetza Murgiako Administrazio Batzarrari dohainik lagatzea proposatu da, bertan herriko administrazio- eta gizarte-zentroa eraiki dezaten, helburu hori interes publikokoa dela egiaztatuta dagoela uste baita.

Administrazio Batzarrak idazki bat aurkeztu du, non honek ere elkartrukatzeko prozeduran atzera egiten duen eta udalaren titulartasuneko lursailaren jabetza lagatzeko eskatzen duen. Horretarako, lursailaren helburua justifikatzen du.

2016ko apirilaren 8an emandako txosten juridiko eta teknikoak IKUSIRIK.

**KONTUAN HARTUTA**  
justifikatuta dagoela eskatutako lursailak izango duen helburua interes publikokoa dela.

**JAKINDA** gaurko egunean lagako den finka Jabetza Erregistroan noiz inskribatuko zain baino ez dagoela, eta horretarako eskaera aipatu erakundean aurkeztuta dagoela.

Udalbatzak Informazio Batzordearen proposamena aho batez berretsi eta honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioko 2299. fitxa, Murgiako 7. poligonoko 28. lursailari

informativa propone desistir del procedimiento iniciado para permutar con la Junta Administrativa de Murgia la parcela 28B (actualmente parcela 308) polígono 7 de Murgia titularidad del Ayuntamiento con la parcela 9 polígono 1 propiedad de la Junta Administrativa de Murgia, considerando que esta última es propiedad del Ayuntamiento al constar en el Inventario pese a que en el Registro consta como propiedad de la Junta de Murgia, conforme a la información emitida por el Asesor Jurídico y se propone ceder gratuitamente en propiedad la citada parcela a la Junta Administrativa de Murgia para la construcción del Centro administrativo social de la misma por considerar justificado el interés público del destino.

La Junta Administrativa ha presentado un escrito en el que desiste igualmente del procedimiento de permuta y solicita la cesión en propiedad de la parcela de titularidad municipal para lo cual justifica el destino del terreno.

VISTOS los informes jurídico y técnico emitidos con fecha 8 de abril de 2.016.

CONSIDERANDO justificado el interés público del fin al que está previsto destinar la parcela solicitada.

RESULTANDO que a fecha de hoy únicamente está pendiente de inscribir en el Registro de la propiedad la finca objeto de cesión, cuya solicitud está presentada en dicho organismo.

La Corporación por unanimidad, ratificando la propuesta de la Comisión informativa, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Rectificar el Inventario de Bienes y Derechos del Ayuntamiento en la ficha 2299 correspondiente a la parcela



dagokiona, zuzentzea, Félix Ignacio Torres Cia notarioaren aurrean 2016.03.14an eta 445. protokolo-zenbakiarekin emandako eskritura publikoan formalizatutako partzelatzearen eskriturarekin bat.

**BIGARRENA.-** Murgiako Administrazio Batzarrarekin Zuiako Udalarena den Murgiako 7. poligonoko 28B lursaila (gaur egun 308. lursaila) eta 1. poligonoko 9. lursaila elkartrukatzeko Udalbatzaren erabakiz hasitako prozeduran atzera egitea, arestian azaldutako arrazoiengatik.

**HIRUGARRENA.-** Zuiako Udalarena den Murgiako 7. poligonoko 28B lursailaren (gaur egun 308. lursaila) jabetza **MURGIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRARI** dohainik lagatzea, aipatu Kontzejuaren administrazio- eta gizarte-ekipamendua eraiki dezaten. Espedientea izapidetzearen ondorioz sortzen diren gastu guztiak Batzarraren kontura izango dira.

**LAUGARRENA.-** Dohainik lagatako ondasuna Udal honen ondarrera automatikoki itzuliko dela ezartzea, baldin eta asko jota bost urteko epearen buruan aurreikusitako erabilera eman ez bazaio.

**BOSGARRENA.-** Espedientea hamabost egunez jendaurrean jartzea, ALHAOn eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuz, nahi duenak egoki irizten dituen alegazioak egin ditzan.

**SEIGARRENA.-** Erreklamaziorik ezean, erabaki hau behin betikotzat jotzea, eta egotekotan, gaiaren inguruko beste erabaki bat hartzea.-

**ZAZPIGARRENA.-** Arabako Foru Aldundiari erabaki honen berri ematea.

28 polígono 7 de Murgia, de acuerdo con la escritura de parcelación formalizada en escritura pública otorgada ante el Notario D. Félix Ignacio Torres Cia con fecha 14.03.2016, protocolo 445.

**SEGUNDO.-** Desistir del procedimiento de permuta con la Junta Administrativa de Murgia de la parcela de titularidad municipal 28B (actual 308) polígono 7 del Ayuntamiento por la parcela 9 polígono 1 iniciado por acuerdo del Ayuntamiento Pleno de fecha por las razones expuestas anteriormente.

**TERCERO.-** Ceder gratuitamente en propiedad a la JUNTA ADMINISTRATIVA DE MURGIA la parcela 28B (actualmente parcela 308) resultante de la parcelación realizada en la 28 polígono 7, propiedad del Ayuntamiento de Zuija, para la construcción del equipamiento administrativo-social del citado Concejo, siendo por cuenta de la Junta todos los gastos que la tramitación del expediente genere.

**CUARTO.-** Determinar la reversión automática al patrimonio de este Ayuntamiento del bien cedido gratuitamente, si no es destinado al uso previsto en el término máximo de cinco años.

**QUINTO.-** Someter el expediente a información pública por el plazo de quince días, mediante publicación en el BOTHA y exposición en el tablón de anuncios municipal para que puedan formularse las alegaciones que se juzguen convenientes.

**SEXTO.-** Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera alegaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

**SÉPTIMO.-** Dar cuenta de este acuerdo a la Diputación Foral de Álava.



ZORTZIGARRENA.- Doako lagapena, amaitutakoan, Ondasunen Udal Inbentarioan jasotzea, eguneratze aldera.

BEDERATZIGARRENA.- Beharrezko dokumentazioa Jabetza Erregistrora bidaltzea, Hipoteka Legeriaren araberako erregistro-idazpenak egin ditzaten.

HAMARGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordezkari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren erabakiak hartu eta beharrezko agiri publiko eta pribatuak sinatu ditzan udalaren izenean eta ordezkari izan eta, hala badagokio, baita dagozkion zuzenketak egin ditzan ere.

#### **8.- 2016/2018KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

